BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA

**33/2023 EBAZPENA, AZAROAREN 13KOA, BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNTATEKO LEHENDAKARIARENA, II. PELLO APEZETXEA ZUBIRI IKERKETA BEKA PAULA LAITA PALLARESI EMATEA ONARTZEN DUENA.**

2023ko azaroaren 10ean beka horretara aurkeztutako lanak ebaluatzeko izendatutako epaimahaiak bilera egin zuen. Horren arabera honakoak dira aurkeztutako lanak eta lortu dituzten puntuazioak:

| Eskatzailea | Proiektuaren izenburua | Puntuazioa |
|---|---|---|
| Paula Laita Pallares (taldean) | “Bortzirietako hizkuntza aniztasuna eta migratzaileen euskararekiko pertzeptzioak eta jarrerak”. | 98 |
| Saioa Zabala Aristizabal (taldean) | “Bortzirietako gazteek aisialdian dituzten hizkuntza dinamikak; euskararen erabilera, euskararekiko jarrera eta gazteleraren erabilera goiztiarra”. | 72 |
| José Luis Erdozia Mauleon (bakarka) | “Etxarri Aranazko eta Lizarrabengoko etxe-izenak historian barna”. | 63 |
| Arrate Isasa Lizarribar (bakarka) | “Aditz sintetikoen eta *ba-* partikularen erabilera Bortzirietako euskaran”. | 60 |
| Eneko Diego Pérez (bakarka) | “Euskararen erabileraren beherakada Bermeoko kaleetan”. | 54 |
| Mikel Lakasta Pérez-Ilzarbe (bakarka) | “Juan Maria Roman Dornaku Olaetxea. Hizkuntzalari, idazle eta misiolari beratarra. Bizitza eta lana”. | 30 |

Hori guziak ikusirik, honakoa EBATZI DUT:

1) II. Pello Apezetxea Zubiri Ikerketa Beka Paula Laita Pallaresi ematea, “Bortzirietako hizkuntza aniztasuna eta migratzaileen euskararekiko pertzeptzioak eta jarrerak” izenburua duen proiektuarengatik.
2) Saridunari jakinaraztea mankomunitateari idatziz adierazi behar diola esleitutako beka onartzen duela, ebazpena jaso eta hamar egun balioduneko epean.
3) Saridunak bekaren onarpen idatzia aurkeztu ezean, erreserbako eskaeren zerrendan puntuazio gehien lortu duen hurrengo eskatzaileari beka ematea, betiere gutienez 50 puntu lortu dituzten proiektuak kontuan hartuta.
4) Eskatzaile guziei ebazpen honen berri ematea.
5) Ebazpena mankomunitatearen webgunean argitaratzea.

**Eta behar den lekuan hala ager dadin eta ondorio egokiak sor ditzan, hauxe sinatu dut, sinadura digitalean agertzen den datan.**

Lehendakaria
Leire Mitxelena Gamio

2023.11.14
13:24:35
+01'00'

ZIURTATZEN DU, IDAZKARIAK
Nagore Madariaga Iriarte

Data:
2023.11.14
13:25:55 +01'00'